ASTEKARIA - 2012ko ekainaren 8an - XVI. urtea - Usurbil, 493. zenbakia

TOKIKOM

# Noaua!!

www.noaua.com



Ekainaren 13an, Udajolaseko bilera Udarregi ikastolan



## Jolas giroan, primeran ibili ziren

# Ikastolaren Egunean


SORTUKO DIRA BESTEAK
XABIER LETE GOGOAN
bastero KULTURGUNEA
EÑAUT ELORRIETA
MIKEL URDANGARIN
ALEX SARDUI (GATIBU)
PIER PAUL BERZAITZ
ARANTXA IRAZUSTA
PETTI
AMETS ARZALLUS
ANDOAIN
BASTERO KULTURUNEA
EKAINAK 15
21:30tan
ANDOAINGO UDALA
Sarreren salmenta
kutxa
Info: 943 303 540
www.andoain.org


JORGEMEDIUM.COM
Kaixo, albiste zoragarri baten berri eman behar dizuet, San Juan jaia ospatzen denez Jorgemedium.com igarlea Usurbilen egongo da ekainaren 23an eta 24an, tarot kontsultak eta terapia alternatiben aholkuak ematen. Beste mundutik haratagoko mezuak ere transmitituko ditu. Besarkada handi bat eta zuen zain geratzen naiz.
HITZORDUA ESKATZEKO : 699 87 05 77


KOMERTZIAL DISEINATZAILEA BEHAR DA
NOAUA! KULTUR ELKARTEAN, AMATASUN-BAJA BETETZEKO IRAILETIK AURRERA
FUNTZIOAK:
NOAUA! astekariko eta noaua.com webguneko publizitatea antolatzeko.
Eginbehar nagusiak: publizitatea lortu, publizitate moduloak diseinatu, bezeroen behar komertzialei erantzun eta bestelako diseinu lanak.
PROFILA:
- Publizitatean lizentziatua (baita azken ikasturtean matrikulatutakoak ere) edo diseinu ikasketak eginda izatea.
- Usurbildarrek lehentasuna izango dute.
- EGA edo baliokidea den agiria izatea baloratuko da.
- Gida-baimena izatea baloratuko da.
- Komunikatzaile ona eta teknologia berrietan trebatua izatea.
ZER ESKAINTZEN DA:
- Lau orduko lan-saioa gizarte segurantzarekin.
- Amatasun-baja betetzeko kontratua.
Curriculum-a ekainaren 15a baino lehen ekarri edo bidali:
NOAUA! Kultur Elkartea | Bordaberri 3, 20170 Usurbil | E-postaz: elkartea@noaua.com

Albistea iruditan

# Sektore publikoko murrizketen aurrean, elkarretaratzea

Aplikatzen ari diren murrizketengatik, sektore publikoko langileak greba edota lan uzteetara deituak zeuden joan den maiatzaren 31n. Euskal Herriko gehiengo sindikalak finkaturiko mobilizazioek Usurbilen ere eragina izan zuten. Udal langileek bi orduko lan uztea burutu zuten Joxe Martin Sagardia plazan, "Zerbitzu publikoak unibertsalak eta doakoak. Burujabetza politiko eta ekonomikoa" lemapean. Usurbilgo Udaleko LAB eta ELA sindikatuek deitu zuten aipatu mobilizazioa.




MAIATZAREN 31N ELKARRETARATZEA EGIN ZEN UDALETXE AURREAN.

## Telefono interesgarriak

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | DYA | 943 464 622 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Etumeta AEK Euskaltegia | 607 609 379 | Emergentziak | 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Taxia (Angel) | 607 928 770 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 | BBVA | 943 377 155 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Eusko Tren | 943 470 976 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Anbulategia | 943 362 013 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| KzGunea | 943 023 684 | Oa botika | 943 376 076 | Telefonica | 1004 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Iturralde botika | 943 363 395 | Euskaltel | 900 840 840 |

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

# Hierarkia katolikoaren homofobia

Maiatzaren 17a Homofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen. Zergatik egun horretan? Homosexualitatea eritasunen zerrendatik kendu zuelako Osasun Munduko Erakundeak 1973ko maiatzaren 17an.

Homofobia, labur esanda, homosexualen eta homosexualitatearen kontrako ezinikusia da. Kolektibo honetan sartzen dira Gayak, hitz frantsesa hau: alaia, dibertigarria esan nahi du eta Lesbianak; Lesbos irla greziarra da eta bertan idatzi zituen Safo poetak poema batzuk duela bi mila eta seiehun urte emakumeen arteko erlazio sexualak deskribatuz. Hortik lesbiana hitza.

Baina, prentsan data horrek baino oihartzun handiagoa izan zuen egun batzuk lehenago Alcalá de Henaresko Juan Antonio Reig Pla gotzainak egindako adierazpenak, Ostiral Santuan telebistatik emandako mezetan hain zuzen. Tipo horrek esan zuen lotsa gutxirekin harreman sexualak lege naturalaren aurkakoak direla eta aldi berean Jainkoaren borondatearen kontrakoak. A ze iskanbila sortu zuena! Ez da gutxiagorako. Jainkoak noiz esan dio hori? Linea telefoniko zuzena al du bada berarekin? Gay eta lesbianen zigor bihurtu da. Horregatik, Alcaláko udalak "persona non grata" deklaratu du gotzaina, baina, gutxi axola berari. Adierazpen horiek homosexualen aurkako jarrerak bultzatzen dituzte; bizi duten egoera zail horretan lagundu beharrean, oztopoak jarri besterik ez dute egiten; erasoak izaten jarrai dezatela nahi dute. Ez al daki gotzain horrek munduan zehar oraindik 76 herrialdetan harreman homosexualak legez debekatuta daudela, zazpi herrialdek heriotzaz zigortzen dutela homosexualitatea?; Iranen iaz hiru urkatu zituzten "sodomiako jarduera lizunak" edukitzeagatik. Ipar Ameriketan Obamak ere esan du: "Sexu bereko bikoteek ezkontzeko aukera izan behar lukete. Garaia da aurrera pauso hori emateko". Baina, oraindik, sei estatutan bakarrik ezkon daitezke.

60 urte pasa dira Giza Eskubideen Azalpen Unibertsala aldarrikatu zela eta gezurra dirudi oraindik ideia atzeratu eta kaltegarri horiekin nola jarrai dezaketen gure hierarkiaren ordezkari horiek. Baina txarrena ez da inozo batek adierazpen negargarri batzuk egitea, baizik, Espainiako gotzaindegiak ezer ez adieraztea horren kontra, azalpen horiek ez gaitzestea. Horrek adierazten du gotzaingoak oro har pentsaera bera duela. Gotzain hauek bat egiten dute munduko ultra erlijioso guztiekin: kristau, musulman, nahiz judutar. Gotzain bakarra ezagutzen dut Europan homosexualen eskubideak defendatu eta beraien manifestazioetan parte hartzen zuena: Jacques Gaillot frantsesa; berehala Juan Pablo II.ak bota zuten kargutik eta elizbarruti birtual bat eman zion. Europa osoan ez zen apezpiku bat ere Gailloten alde atera.

Marciano Vidal teologoa ere zigortu zuten "Moral de actitudes" idazteagatik; liburu hori oso ona da kristautasunak sexuarekin izan dituen harreman zailak ulertzeko. Sexua da "un lujo de la naturaleza", dio eta gainera konprenitzen dituela homosexualitatea, ezkon aurreko erlazioak eta masturbazioa. A zer astakeriak diren hierarkiarentzat.

Pentsa noraino iristen den Hierarkiaren homofobia: duela gutxi, Benedicto XVI.ak agindu zien gotzainei ez ordenatzeko jarduera homosexualak dituen edo joera homosexual finkoa duen inor. Apaizak izan behar du nonbait gizon-gizon, ez erdigizon. Hori bai, ezkongabea.

Eskerrak teologo, erlijioso nahiz laiko eta parrokietako erretore askok bestelako ikuspegia daukagun homosexualitateaz. Guretzat, erlazio sexual oro santu da bi pertsona elkar maitatzen diren neurrian eta hirugarren bati kalterik egiten ez dioten heinean. Beraz, ez gaitzatela sar denak zaku berean.

Hierarkiak bi gauza egin behar lituzke: alde batetik barkamena eskatu gay eta lesbianei mendeetan zehar beraiekiko izan duen jarreragatik, perbertsioaren, bekatu mortalaren eta infernuko beldurraren estigma lotsagarri eta lotsa emangarria ezarri dielako. Eta bestetik, deklara dezala solemneki gays eta lesbianek elkar maitatzeko eskubide sakratua dutela. Orduan bihurtuko litzateke sinesgarri gure hierarkia. Baina, zaila ikusten dut. Jabier Elzok dioen arabera, "askotan bezala, orain ere mendeetako atzerapenarekin dabil hierarkia katolikoa".

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - **Luis Aranalde** - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
Hurrengo alea: ekainak 15. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 11.







# Memoria historikoa bizirik mantendu eta sustatzearen alde agertu da udalbatza

**Nafarroako Konkistaren 500. urtemugaren eta hainbat euskal udalerriren bonbardaketen 75. urtemugaren harira, Usurbilgo Aralarrek eta Bilduk aurkezturiko mozioa onartu zuen udalbatzak maiatzaren 29an burutu zen osoko ohiko bilkuran. "Gure herriaren memoria historikoa bizirik mantentzeko eta sustatzeko beharra aldarrikatzen du. Ildo honetatik, Udal honek sektore batzuek gertaera historiko horietaz egindako irakurketa okerra eta manipulatua salatzen du", dio azken osoko bilkuran onarturiko adierazpenak.**



MAIATZEKO OHIKO PLENOAN HARTU ZEN ERABAKIA.

Sei puntuko testuan gainera, "Usurbilgo Udalak Espainiako Estatuari dei egiten dio Nafarroari eta Euskal Herri osoari 1512ko Konkistan eta 1936-39ko altxamendu faxistan eragindako kaltearen aitortza egitea". Euskal Herriak herri gisa dituen eskubideen aldeko defentsa egiten du mozioak, eta gaineratzen denez, "euskal jendarteak bere etorkizunaz libreki hitz egin eta erabakitzeko eskubidea duela aitortzen du. Era berean, Udal honek eskubide horren alde jarduteko bere konpromisoa adierazten du".

## Nafarroako ikurra

Mozioak datozen hileotarako bi deialdi ere jasotzen ditu. Batetik, uztailaren 25ean Nafarroako ikurra masta erdiraino eskegiko du Udalak, "Iruñea konkistatu zuten 500 urte betetzen direlako".

Lehenago, Nafarroa Bizirik plataformak ekainaren 16an Iruñean 17:30etan deitu duen martxa nazionalarekin ere bat egiten du mozioak, "herritarrei dei egiten die bertan modu aktiboan parte har dezaten". Udal ordezkaritza bat izango da bertan, "herriko izena eramanez".

## Bozketa

Hamaikabat udal taldeak testua puntuz puntu bozkatzea proposatu zuen. Osoko ohiko bilkuran, parte hartzen ari ziren gainerako udal taldeek, Aralar eta Bilduko ordezkariek proposamena onartu eta testuko sei puntuak banan bana bozkatu zituzten. Seitik lau puntu aho batez onartu zituen udalbatzak.

Beste bietan, Iruñeako martxa iragarri eta bertan parte hartzeko gonbita luzatzen zuten bi puntuetan, Hamaikabatek abstentziora jo zuen.

Ika-mika !!

# Ekainak 17. Hirugarren hanka. Haize Errota erraldoia

Hondakinen kudeaketaren gaiak pilpilean segitzen du Gipuzkoan. Hedabide handiek sekulakoak eta bi botatzen segitzen dute errauste planta eraikitzea galeraz dezakeen edozein planteamenduren aurka. Gezur bat behin eta berriz errepikatuta, egi bihurtzen delako saioan.

Zorionez, errealitatea egoskorra da, eta Gipuzkoan jauntxo diren lobbyei handiegia gertatzen ari zaie kontrolatzeko. Espainiako PPren gobernuak berak eredugarritzat dauka Usurbilgo Atez Atekoa. Europako Parlamentuak onartu berri duen txostenak zabortegi kutsakorren itxiera eta material birziklagarrien errausketa debekatzea eskatzen du. Europako Batzordearen materialen efizientziarako bide orria ildo beretik doa. Diputazioak aurrekontuaren erdiarekin guzti honetara egokituko den eta errausketa baztertuko duen plangintza aurkezten ari da aste honetan bertan. Berri itxaropentsuak handik eta hemendik.

Arauak eta plangintzak osasuna eta ingurumenaren alde. Arauak eta plangintzak. Bi hanka itxaropenari eutsi ahal izateko. Baina itxaropenari egonkortasuna eta oreka emateko ezinbestekoa dugu hirugarren hanka baten gainean eustea. Herritarron babesa da hirugarren hanka hori. Herritarron babesik gabe, itxaropenak ez du behar besteko sendotasunik eta egonkortasunik izango.

Herritarrok ezin dugu geldi geratu. Gure esku dago, zaborra, errautsa, kutsadura eta etsipenaren grixetik aldegin eta birziklaia, iraunkortasuna eta itxaropenaren koloreak izango dituen etorkizunari euskarria jartzea. Hirugarren hanka hori finkatzeko antolatu dugu ekainaren 17ko aldarrikapen-festa Donostiako Saguesen. Denok gara hondakinekin dugun arazoaren parte, eta denok daukagu konponbidean gure lekua. Alderdikeriak eta ika-mikak alde batera utzi, eta herritarrok gure lekua hartu behar dugu aire garbiak biratuko duen errota koloretsua irudikatuko duen mosaiko erraldoian. Eskuratu mosaikoa osatzeko kartulina lehenbailehen.

Hartu zure lekua! Etorkizuna guztiona da eta!

**Usurbil Zero Zabor**

# Sustapen ekonomikorako eta enplegurako protokoloa sinatu dute Buruntzaldeko udalek

**Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek sustapen ekonomiko eta enplegurako eskualde mailako lankidetza protokoloa sinatu dute. Sei udalen iritziz, "udalerri bakoitzaren gaitasunak eta baliabideak hobeto aprobetxatuko lirateke, administrazio burokrazia gutxituko litzakete, giza baliabideak eta baliabide materialak optimizatu ahal izango lirateke eta ekintzen batasuna bermatuko litzateke, interferentziak eta gatazkak saihestuz".**



ESKUALDEKO ALKATEEK SINATU DUTE HITZARMENA.

Akordio honen baitan, lau helburu bete nahi dituzte sei udalek: sustapen ekonomiko eta enplegu arloan gure lurraldearen egoera zein den jakiteko diagnostikoa egitea; enplegurako eta sustapen ekonomikorako plan lokal edota eskualde mailakoak garatzea, elkarlanaren eta lankidetzaren bidez, gure lurraldearen behar eta aukeren diagnostiko partekatutik abiatuz; eskualde mailako egitasmoen kudeaketan eta zuzendaritza politikoan arintasuna bermatzea, laguntza tekniko egokiaz baliatuz; eskualdeko udalerri guztien interesak bateratuko lituzkeen egitura baten bidez sustapen ekonomiko eta enplegu arloan elkarlanean eta lankidetzan aritzea mesedegarria ote den aztertzea.

## Intza Salsamendi, jaietako egitarau diseinu lehiaketako irabazlea

Iaz bezala aurten ere, Intza Salsamendi herritarrak irabazi du Santixabeletako Egitarau Diseinu Lehiaketa. Hiru lanen artean aukeratu behar izan du aurtengoan, mistoa izan den epaimahaiak. Edizio batetik bestera lehiaketara aurkezturiko diseinu lanen kalitatea geroz eta hobeagoa dela ikusita hain zuzen, Jai Batzordeak balorazio lan hau egiteko taldea indartu du aurtengoan. Epaimahaia, kultur arloko zinegotziarekin batera, Jai Batzordeko bi kideez eta diseinu munduan diharduten bi lagunez osatu da.

Urtetik urtera hobetzen doan lanen kalitatea goraipatu du epaimahaiak. Aste gutxi barru ezagutu ahal izango da Salsamendik eginiko lanaren emaitza. Jaiak ekainaren 28an hasi eta uztailaren 2an amaituko dira.

## UEMA Eguna, larunbatean Goizuetan

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) urteroko festa eta aldarrikapen eguna ospatuko du, larunbat honetan, ekainaren 9an Goizuetan. "Euskaraz bizi eta ari, herri euskaldunak aitzindari" leloa aukeratu dute. Goiz partean batzarra egingo dute eta ondoren jai giroan igarotzeko moduko egitaraua iragarri dute.

ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Baserriko haragia
·Frutak ·Barazkiak ·Etxeko produktuak ·Izoztuak
Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

txirriStra
TABERNA

·Plater konbinatuak
·Ogitartekoak
·Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Diru-laguntza eskaera kopuruak gorantz egin du

**Herrian antolatzen diren hainbat ekimen babesteko Usurbilgo Udalak aurten martxan jarritako diru-laguntza deialdi desberdinak banatzeko prozesua aurrerabidean da. Kultur, ongizate eta kirol arloetakoak behin behingoz onartu dira eta egunotan alegazioak aurkezteko epea zabalik geratuko da. Ingurumen alorrekoak laster onartzekoak dira diru-laguntza batzordean. Azkenik, euskara eta aisialdi alorretakoak eskatzeko epea hamar egun barru zabalduko da.**



KULTURA AHOLKU BATZORDEAN LANDU ZIREN IRIZPIDEAK HARTU DIRA KONTUAN.

Kultur arloko udal departamendutik berri eman dutenez, iaztik hona gorantz egin du diru-laguntzak jasotzeko herriko talde edo elkarteek eginiko eskaera kopuruak. Iaz 24 taldeek 100 ekintzetarako udal finantziazioa eskatu zuten, aurten 17 ekintza gehiagotarako. Beste datu bat; iaz 30 ekintzetan parte hartzeko sarrera bat ordaindu behar zen, aurten 60 ekimenetarako. Urtebeteren tartean, herrian antolatu diren sarreradun ekintzen ehunekoa bikoiztu da; %26,5etik %60ra igo da.

Kultura Aholku Batzordean eginiko lanketa legoke, honen guztiaren atzean. Deialdi honetan hain zuzen, zorroztasun handiagoz jardun du Usurbilgo Udalak. Aurkeztu diren eskaeren baitan, "zer kontzeptu onartu edo ez" erabaki dute diru-laguntza deialdiko batzordean. Kontzeptu batzuk onartu eta beste batzuk baztertu eta beste udal departamenturen batera bideratu ondoren, 105.917 euroko laguntza eskaera zuen Udalak, kultur arloko departamendutik berri eman dutenez.

Aldiz, 90.000 euroko partida aurreikusia zuen Udalak diru laguntzetarako. Udalak ikastaroak %60an, irteerak %10ean, kanpamendu eta udako txokoak %60an, eta gainerako ekimenak %95ean diruz lagundu asmo dituela kontuan izanik, kultur departamendutik baieztatu dutenez, oro har "ekintza guztiak gehieneko ehuneko horietan ordaindu dira".

Guztira honenbestez, 85.688 euroko laguntza ematea onartu du Udalak. Hori bai, behin behingoz. Oraindik, alegazio epea pasa eta behin betikoz onartzea falta da eta.

### Ingurumenekoak, aparte

Kopuru horretatik bereizi beharra dago gainera, aurtengoan, deialdi berri moduan sortu diren Ingurumen eta Nekazaritza alorreko diru-laguntzak. Orain arte kultur arlotik bideratzen ziren zenbait laguntza, aurtengoan beste deialdi berri honetatik jasoko dituzte zenbait eskatzaileek.

## Euskara eta aisialdiko laguntzak, ekaineko bigarren hamabostaldian

Irekitzear da, UEU-ko ikastaroren bat egin edo euskara ikasten aritu direnentzako diru-laguntzak eskatzeko epea. Ekainaren 18tik 29rako tartea izango da. Aurtengoan, epealdi berean, aisialdiko begirale edo zuzendari titulua ateratzeko ikastaroren bat egin dutenek ere diru-laguntza eskatu ahal izango dute.

Diru-laguntza deialdi berria dute, hain zuzen, aisialdirako begirale edo zuzendari titulua lortzeko joan den udazkenetik hona ikastaroa burutu dutenek. Usurbilen erroldatuak daudenei, matrikularen erdia itzuliko zaie. Begirale titulua atera dutenei gehienez jota 250 euroko laguntza emango zaie, 150 eurokoa zuzendari titulua eskuratu dutenei. Laguntza hauek, orain arte Buruntzaldeko udalek alor honetan antolatzen zituzten ikastaroak ordezkatuko dituzte.

Eskaerak ekainaren 18tik 29ra aurkeztu ahal izango dira udal erregistroan. Informazio gehiago, Potxoenean, Euskara Zerbitzuan (943 371 999).

### Sexu heziketa tailerrak

**Ekainak 8, ostirala**

**15:15-17:15** DBH 3ko gazteentzat Potxoenean. Prezioa: euro bat.

**Ekainak 13, 19 eta 20**

**14:30-16:30** Haur sexualitate tailerra Potxoenean, 7-12 urte arteko haurren guraso, hezitzaile eta arduradunentzat.

**Ekainak 11, 20**

"Antonia" filmarekin Bideoforumak Elena Jimenez sexologoarekin:

Ekainak 11: 16:30 Santuenea K.E.

Ekainak 20: 17:30 Aginagako apaiz etxe azpiko lokala.

# Udajolaseko guraso bilera, ekainaren 13an ikastolan

**Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarteak antolatu duten Udajolas ekimenean izena eman duten haurren gurasoei zuzenduriko bilera deitu da, ekainaren 13rako, 17:00etan Udarregi Ikastolan. Udalekuetako zehaztasunen berri emango da bertan.**

### Aginagako udako txokoak

Astebete barru itxiko da, Aginagako txokoetan izen emateko epea, honako telefono zenbaki hauetan: 600 484 948 (Manuel) edo 650 011 933 (Mari Jose). Prezioak iazko antzekoak izango dira. Txokoak uztailaren 2tik 30era izango dira, goizez, 10:00-13:00 artean.



Udajolas aurten uztailaren 3an hasi eta 27an amaituko da.

## Aurre matrikulazio epea ixtear, Lanbide Heziketan

Interesdunek, ostiral hau, ekainaren 8a dute, 2012-2013 ikasturterako Usurbilgo Lanbide Eskolan aurre matrikulatzeko azken eguna. Dokumentazioa eta eskabideak, bulegoko ordutegian aurkeztu beharko dira; astelehenetik ostegunera, 9:00-14:00 eta 16:00-18:00 artean, edo ostiralean, 9:00-14:00 artean. Argibide gehiagorako: 943 364 600 edo emailez: eskola@lhusurbil.com

## Hastapen Tailerrean ere, azken egunak izena emateko

Datorren 2012-2013 ikasturtean zehar, sukaldari-zerbitzari langile edo ile-apainketa laguntzaile gisa jarduteko ikasketak eskainiko dituzte bertan. Hasierako Lanbide Prestakuntza Programako eskola Atallun kokatua dago, Zanpiura kalea, 3. zenbakian. Informazio gehiago jaso nahi duenak, 943 360 465 telefono zenbakira deitu dezake, edo bestela, lhi.usurbil@gmail.com helbidera email bat bidali.

## Zumarteko ikasturtea azken txanpan

Joan den ostiralean itxi zen datorren ikasturterako Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko epea. Oporrak hartzear dira jada, baina aurretik ikasturte amaierako kontzertuak programatu dituzte. Lehenengoa, ekainaren 13rako, 18:30etan Musika Eskolako Ganbaran; piano entzunaldia hain zuzen. Gainerako kontzertuak, hilaren 18tik 22ra ospatuko dira.

## 1975eko kinto afaria

1975 urtean jaio zirenen kinto afaria egingo da ekainaren 30ean Atxega jauregian. Animatzen denak usurbil1975@gmail.com e-postara idatzi dezala, ekainaren 22a baino lehen.

## San Joanetako oilasko biltzaileen bazkaria

Kalezargo San Juan jaien baitan ospatuko den oilasko biltzaileen bazkarirako txartelak aldez aurretik erosi beharko dira. Azken aukera, ekainaren 7an, 19:00-19:30 artean Peña Pagola elkartean. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, norberak etxetik eraman beharko du bazkaritarako behar duen plater, sardexka, labana eta gainerako tresneria. Otordua, hilaren 16an, larunbatarekin ospatuko da Kalezarren.









# Ikastola Eguna, ikuskizun eta jolas

Eguneroko zereginak alboratuta, ikasle, irakasle eta gurasoek Ikastola Euneko jaialdian murgiltzeko aukera izan zuten joan den igandean. Goizean ikasleen arteko jokoak ospatu ziren, euren lanak erakusgai jartzearekin batera. Eskulan eta teknologia ikasgaietan urtean zehar egindakoren emaitza ezagutzeko aukera egon zen ikastolan bertan. Zalantzarik gabe ordea, ikusmin handiena Haur Hezkuntzako ikasle eta irakasleek Oiardo Kiroldegian eskaini zuten ikuskizunak piztu zuen. Beste behin, kirol gunea jendez bete zen, “Datorrenari, agur!” izeneko emanaldia ikusteko. Eguna frontoian ospaturiko bazkari baten bueltan borobildu zuten.



IKASLEEN ARTEKO JOKOAK EGIN ZIREN UDARREGIKO PATIOAN.














# Atera gidabaimena euskaraz!

***Semaforo berdea!! Gidabaimena euskaraz*** **ekimena martxan dute Buruntzaldeko udalek. Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gainditzen dutenen artean, auto-eskola bakoitzeko sari bat banatuko da 2012 urte honetan ere. Udal eta auto-eskoletako ordezkariak pozik dira ekimenarekin izan ere, aspaldiko asmoa zen auto-eskolen sektorean, teoria euskaraz irakastearena. Udalek erraztutako materialei esker hau posible da gure herrietako auto-eskoletan.**

Uda iristear da eta garai honetan asko dira gidabaimena ateratzekotan diren gazteak. Hau dela eta, Buruntzaldeko udalek, *Semaforo berdea!! Gidabaimena euskaraz* ekimenaren bitartez, gidabaimena euskaraz ateratzen dutenei parte teorikoa doan lortzeko aukera eskaini nahi diete. Horrela, auto-eskola bakoitzeko sari bat zozketatuko da.

Ekimena martxan jarri zenetik geroz eta gehiago dira Buruntzaldean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzera animatu direnak. 2011n esaterako, aurreko urteko ikasle kopurua bikoiztu egin zen, 60 ikaslek gainditu zuten euskaraz gidabaimena.

### Harrerarekin pozik

Naiara Sanchiz Hernaniko euskara zinegotziaren hitzetan "ikasle kopurua ia bikoiztu egin da urtetik urtera eta etorkizunerako erronka azterketa praktikoa ere euskaraz egin ahal izateko aztertzaile gehiagok euskaraz jakitea da. Baita geroz eta gazte gehiagok gidabaimena euskaraz ateratzea ere".

Horretaz gain, eskualdeko udal ordezkarientzat erakunde ezberdinen arteko elkarlana sustatzea garrantzitsua da "aurrera begira egitasmoarekin bat egitea Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Trafiko ministerioak".

Auto-eskolentzat, Jose Miguel Solozabal, Solozabal auto-eskoletako buruak azaldu bezala, gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera eskaintzea aspaldiko nahia zen sektorean eta "Udalek egindako esfortzu ekonomikoa oso eskertzekoa da".

Izan ere, Buruntzaldeko Udalek auto-eskolek zerbitzua euskaraz eman ahal izateko behar dituzten bitartekoak jartzen lagundu zieten egitasmoan parte hartu nahi izan zuten auto-eskolei. Ordenagailurako multimedia aplikazioak eta liburuak erosten lagundu zieten 2009-2010 ikasturtean.

Eta laguntza hori gabe auto-eskolek ezinezkotzat jotzen zuten sektorean eskaintza hau egin ahal izatea.



AUTO-ESKOLA BAKOITZEKO 400 EURO ARTEKO SARIA ZOZKETATUKO DA.

### Azterketa teorikoa doan

Honetaz gain, beste urte batez, *Semaforo Berdea!! Gidabaimena euskaraz* ekimenean parte hartzen duen auto-eskola bakoitzean sari bat banatuko da euskaraz gidabaimena prestatu eta gainditzen duten ikasle guztien artean. Saria prestakuntza teoriko bat doan izango da, 400 euro artekoa.

Aurreko urtean esaterako, hamaika saritu izan ziren Buruntzaldean eta guztiak pozik azaldu ziren saria jasoko zutela jakitean.

Bakoitzak 400 euro jaso zituen eskualdeko alkate edo euskara zinegotzien eskuetatik. Sari banaketa ekitaldietan, Udal ordezkariek herrietako zein eskualdeko gazteak animatu nahi izan zituzten gidabaimena euskaraz ateratzeko.

Sarituek ere hitz onak izan zituzten Buruntzaldeko udalek martxan jarritako ekimenarentzat. Gehienek D ereduko ikasleak izanda, gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera zegoela eta euskaraz zein gazteleraz zailtasun berdina izango zutela pentsatuta, hau ere euskaraz prestatu eta ateratzera animatu ziren.

"Azterketa euskaraz ez da zailagoa, hitz teknikoak arrotzak gertatzen zaizkizu bai gazteleraz baita euskaraz ere, beraz ez dut uste hizkuntzak garrantzia duenik. Jendea animatzen dut gidabaimena euskaraz ateratzea", azpimarratu digu saritutako gazteetako batek.

## Zure gaitasuna aztertu

**Ibilgailuen ibilbideak gurutzatuko balira, zein pasako litzateke lehenengo?**

A-Ibilgailu urdina
B-Ibilgailu gorria
C-Ibilgailu zuria



Erantzunak eta gehiago...
buruntzaldea.org orrialdean

Honetaz gain, *Semaforo Berdea!! Gidabaimena euskaraz* ekimenari buruzko informazio gehiago aurki dezakezu bertan, hala nola, 2011 urteko irabazleak. Zalantzan dagoenak, gainera, ikasgai bat euskaraz ikusi eta entzuteko aukera du.


Orain
SEMAFORO BERDEA!!
AZTERKETA TEORIKO BATEN ZOZKETA
AUTO-ESKOLA BAKOITZEKO
(Azterketa teoriko bat, gehienez 400 euro)
gidabaimena
EUSKARAZ
AZKEN TEKNOLOGIAN
MURGILDUTA
IRUDIEKIN JOLASEAN
BURUNTZALDEAN NON:
Andoain
BENGOETXEA Juan Bautista Erro 9 943 59 44 06
MENDI Agustin de Leitza 11 943 30 06 04
Astigarraga
OTAMENDI Pelotari 6 943 33 22 11
Hernani
HERNANI Latsunbe 3 943 55 05 34
Urbieta 7 943 55 34 16
LAGUNAK Karobieta 1 943 33 14 19
OTAMENDI Izpizua 1 943 55 35 45
Lasarte-Oria
IZARRA Geltoki 11 943 37 70 05
LASARTE Nagusia 5 943 37 06 92
MUGICA Ganbo 1 943 36 22 75
Urnieta
SOLOZABAL Idiazabal 24-1C 607 61 64 16
Usurbil
SOLOZABAL Irazu 2 943 37 69 36
EMAN BIDEA
HAUXE DUZU GIDABAIMENA
ATERATZEKO MODURIK
ERAKARGARRIENA!!!
gidabaimena
EUSKARAZ
DAKIZUNA ERABILI EZ DAKIZUNA IKASTEKO!
www.buruntzaldea.org
Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskarako Batzordeak




EKAINAK 17

10:00etan hasita goiz osoko aldarrikapen-festa

12:30etan

# Mosaiko erraldoia

DONOSTIA - SAGUES

EKAINAK 8, ostirala. 18:30. Sutegin. "Errauskaetari ateak ixten" dokumentala.
EKAINAK 10, igandea. 12:00. Usurbilgo Plazan. E17rako kartulinak banatu eta haize errotak salduko dira. 13:00. Herriko eragileen agerraldia plazan.

Harremanetarako usurbilzerozabor@gmail.com

ZERO ZABOR

# Kukutzako gaztetxeko kideek mahainguru batean hartuko dute parte

**Euskal Jairen desalojoari buruzko bideo proiekzioa antolatu zuen igande arratsalderako, ITAYA Gazte Asanbladak. Ekitaldia, bilgunea gaztetxearen inguruko hausnarketa prozesu betean dabilen honetan antolatu dute. Baina ez da iragarria duten hitzordu bakarra. Igande honetarako, ekainaren 10erako, Kukutza gaztetxeko partaideak gonbidatu dituzte Sutegira.**


IGANDE HONETAN, SUTEGIN IZANGO DIRA 18:30EAN.

18:30ean hasiko den hitzorduan, mahai inguru bat burutuko da. "Beraien historia kontatuko digute, orain Bilbon, batez ere Errekalden, gelditu den hutsunea... eta noski hau Usurbilgo kasuarekin kontrajarriko dugu tertuli eta eztabaidarako. Gaztetxea guztion etxea izateko, guztiok har dezagun parte hausnarketan ere!!! Hurbildu eta batu zaitez proiektu berri honetan!!! Herri bat, gaztetxe bat!!!", adierazi dute ITAYA-tik, NOAUA!ko web orrialdera helarazi duten mezuaren bidez.

# Ostiral honetan Sutegin, "Errausketari ateak ixten" dokumentala

Gipuzkoako hondakinen kudeaketaren gaia pil-pilean eta hilabete erabakigarrian sartu berri den honetan, "Errausketari ateak ixten" dokumentalaren proiekzioa programatu dute ITAYA Gazte Asanbladak eta Usurbil Zero Zabor bilguneak, ostiral honetarako, ekainaren 8rako, 18:30etik aurrera Sutegiko auditorioan.


18:30EAN HASIKO DA DOKUMENTALAREN PROIEKZIOA.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, "Dokumentalean zaborraren problematika bere osotasunean azaleratzen saiatu gara: garai bateko zaborraren kudeaketa, Europan dauden eredu desberdinak...".

## Andatzakoekin Errioxara joan asmo dutenentzat, bilera deia

Larunbat eta igande honetarako, Errioxara irteera antolatu du Andatza Mendizale Elkarteak. Izen emateko epea astelehenean itxi zen ordea. Apuntatu direnek beharrezko argibideak jasotzeko, bilera deitu du antolakuntzak ostegun honetarako, ekainaren 7rako, 19:00etan Sutegin. San Millan de la Cogolla, Ezcaray, San Lorenzo, Valdezcaray inguruetan ibiliko dira.

### Eskalada ikastaroa

Datorren astelehenean, ekainaren 11n itxiko da bestalde, Andatzakoek uztailaren 7 eta 8rako antolatu duten eskalada ikastaroan izen emateko epea.

### Uztailean, Piedrafitara

Uztailaren 14an eta 15ean Piedrafitako zirkora irteera antolatu dute Andatzakoek. Uztailaren 9an amaiuko da izen-ematea. Informazio gehiago: andatza.com


EKAINAREN 11N AMAITUKO DA ESKALADA IKASTAROAN IZENA EMATEKO EPEA.






# Kantu Taldekoak, ikasturte amaierari begira

**Maiatzeko azken larunbatean ospatu zen Usurbilgo Euskal Kantu Taldearen hitzordua; kantu-jira. "Usurbilgo kantuzaleak kantari ibili ziren kalez-kale. Susi Elosegiren laguntza eskergabea izan zuten Pello eta Amaia trikitilariekin batera", berri eman dute antolakuntzatik. Ohartarazi dutenez, hilaren 26an egindako saioa ikasturteko azkena izan da. Datorrena iraila amaieran ospatuko da. Baina uztaila bitartean oraindik beste bi hitzordu nagusi deitu dituzte Kantu Taldetik.**

"Uda aurreko azken entsegua Artzabalen, ekainaren 19an izango da, oraingoan Mikel Markezen laguntza paregabearekin. Bestetik, ekainaren 30ean, Santixabeletan, Kantu Jira mundiala izango da. Kuxkuxtu txaranga lagun izanik kantuaz gozatzeko aukera ezin hobea, ondoren Kantu Zikiro Jana umoretsu bat ospatuz", iragarri dute. Hitzorduotan parte hartzera deitzen dute. Gogorarazten dutenez, "Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak antolatzen duen ekimen honek, kantatzeko zaletasuna piztuz euskal kantuak bultzatzea du helburu. Asteartero egiten dira kantu entseguak ikastolan. Herritarrentzat irekiak dira bai entseguak eta baita Kantu Jirak ere".



EKAINAREN 19KO ENTSEGURA MIKEL MARKEZ HURBILDUKO DA.

# Mintzalagunak, Ardituррin

Maiatzaren 27an Oiartzun aldean ibili ziren Mintzalaguneko kideak. "Oraingoan mintzalagunok Arditurriko meatzetan barrena ibili gara. Igandean Aiako Harriak parkearen eguna zela aprobetxatuz, Oiartzungo bidegorriari jarraitu eta duela gutxi arte ustiatu izan den meategira iritsi ginen. Harrigarria da horrelako toki batean nolako lanak eginak dauden ikustea, pentsa erromatar garaian hasi ziren ustiatzen, auskalo nolako baldintzetan. Ez zen xamurra izango bertan lan egitea!!!", adierazi dute ekimeneko partaideek.



ARDITURRIKO MEATZETAN IZAN ZIREN MAIATZAREN 27AN.

## Bertsopaper Lehiaketan parte hartzeko oinarriak

Ekainaren 25era arte zabalik dago XXXVI. Santixabeletako Bertsopaper Lehiaketan parte hartzeko epea. Interesdunek, gai librean 6-10 bertso artean idatzi eta udaletxeko helbidera bidali beharko dituzte, gutunazal batean goitizenarekin. Lanarekin batera gutun itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak jarri. Txapelketan parte hartzeko ezinbestekoa izango da usurbildarra izatea. Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute.

## Igandean, kartulina salmenta eta entsegua

Ekainaren 17an Donostiako Saguesen, herritarren laguntzaz mosaiko erraldoia eraikitzeko deia egina du Gipuzkoa Zero Zabor bilguneak. Igande honetan, ekimenean parte hartzeko beharrezkoak izango diren kartulinak eskuratu ahal izango dira Dema plazan, 12:00etatik aurrera Usurbil Zero Zaborrek jarriko duen salmenta postuan. Gero,13:00etatik aurrera, entsegu saioa burutuko da.

## Oria ibaia piragua bidez garbitzeko deia

Oria ibaia garbitzeko deia egin du aurten ere, Puntapax Kanoe Kirol Elkarteak. Ekainaren 16an larunbata jarri du hitzordua, 9:30ean Zubietako Aliri zubi ondoan.









# Usurbil Futbol Taldearen erakusketa, datorren astean

**1976an sortu zenetik gaurdaino herriko futbol taldeen bilguneak osatu duen ibilbidea erakusketa baten bidez jaso asmo du Usurbil FT-k. Datorren ekainaren 14tik 16ra izango da ikusgai, Sutegiko aretoan.**



EKAINAREN 14AN ZABALDUKO DA ERAKUSKETA SUTEGIN.

Hilaren 14 eta 15ean, 18:00-20:00 artean eta hilaren 16an, 11:00-13:30 artean. Material desberdina erakusgai jarriko dute; argazkiak, kamisetak, artikuluak… Erakusketako azken egunerako gainera, Futbol Taldearen Eguna antolatu du Usurbil FT-k; Usurbil Cup txapelketako jardunaldia, futbolari beteranoen partidak, triki-poteoa eta afaria bilgunea osatzen duten guztientzat… Ekainaren 16ko jai egunari loturiko zehaztasun gehiago, datorren astekarian.

## Alebin taldean izena emateko epea

2012-2013 denboraldian, alebin federatu mailako taldea osatu asmo du Usurbil FT-k. Plaza mugatuak izango dira, gehienez 16 lagunentzako lekua dago. Apuntatzeko epea ekainaren 7ra arte zabaldu dute.

Izen emateko bi modu daude: futusurbil@yahoo.es helbidera email bat bidalita, edo ostegunetan, Usurbil FT-k Haranen duen egoitzara gerturatuta, 18:00-20:00 artean.

# Irisasi BTT materiala eskatzeko aukera

Andatza Mendizale Elkartearekin batera, Irisasi BTT taldeak prestatu duen mendiko eta errepideko txirrindularitzako ekipazioa eskatzeko epeak zabalik jarraitzen du, ekainaren 15era arte: 687858477 telefono zenbakira deituta (aurreko astekoan gaizki zegoen zenbakia) edo email bat bidalita andatzabtt@hotmail.com.

Prezioak eta diseinuak andatzamendizale.info web orrian kontsulta daitezke.



EKAINAREN 15ERA ARTE EGIN DAITEZKE ESKARIAK.

## Usurbilgo Pilota Txapelketa, azken laurdenak

EKAINAK 9 LARUNBATA
**Goizeko 11:00etan, azken laurdenak**
**Jubenilak**
Olano – Tolosa (Leitza)
Labaka – Iruretagoiena (Bidegoien)

Hernandez – Flores (Oiartzun)
Labaka – Rekondo (Lasarte)

EKAINAK 10 IGANDEA
**Goizeko10:00etan, azken laurdenak**
**Jubenilak**
Loitegi– Lizaso (Urnieta)
Zendoia – Telleria (Usurbil)

Inda – Untxalo (Baztan)
Ibargoien – Altuna (Usurbil)

## Paleta Goma Txapelketa, datozen jardunaldiak

NESKEN TXAPELKETA
3. JARDUNALDIA
**Ekainak 12 asteartea Usurbilen, 19:30h**
Plas Lorenzo – Arantxa Unanue
Rosa Uribe – Nagore Leoz

Zaloa Leoz – Nerea Zinkunegi
Dolo Errasti – Aitziber Aranguren

MUTILEN TXAPELKETA
2. JARDUNALDIA
**Ekainak 10 igandea Usurbilen, 17:30h**
Josu Arruti – Manuel Galarraga
Enrike Huizi – Jokin Zubiaur

Iban Arruti – Haritz Harreguy
Oidui Usabiaga – Mikel Ibarreta

Xabier Murua – Jon Olaizola
Igor Alkorta – Eneko Arregi

Imanol Esnaola – Xabier Errasti
Unai Loidi – Josu Errekondo

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**
**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**
*Kale Nagusia 10, 1.C4* *20170*
*Tlf 943 37 08 78* *USURBIL*

JE
**JON ELORZA**
**IGELTSERITZA OROKORRA**
**Obrak eta erreformak**
**661 804 688**
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

## Agenda!

### Ekainak 8 ostirala
**Errausketari ateak ixten dokumentala,** 18:30ean Sutegin. Sarrera: doan.

### Ekainak 9 larunbata
**Moneta askeari buruzko bilera,** 10:00etan Potxoenean.

### Ekainak 10 igandea
**Kukutza gaztetxekoekin mahaingurua,** 18:30ean Sutegin.

### Ekainak 11 astelehena
**"Antonia" filma** Santuenean, Kultur Elkartearen egoitzan, 16.30ean.

## Goardiako farmaziak

**Ekainak 7, osteguna**
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

**Ekainak 8, ostirala**
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

**Ekainak 9, larunbata**
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

**Ekainak 10, igandea**
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

**Ekainak 11, astelehena**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Ekainak 12, asteartea**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Ekainak 13, asteazkena**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Ekainak 14, osteguna**
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

**Ekainak 15, ostirala**
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

**Ekainak 16, larunbata**
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

**Ekainak 17, igandea**
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

** Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

*GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ*
*Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani*
*Telefono zenbakia: 943 552 087.*
*Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA 25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)*

# Santuenean abiatu zen "Udalak entzuten zaitu" izeneko ekimena

**Aste hasieratik Udala herritarrekin auzoz auzo biltzen ari da, euren ekarpen eta proposamenak jasotzeko. Santuenean burutu zuten astelehenean lehen bilkura, baina egunotarako hitzordu gehiago deitu dituzte baita. Hurrengo bileren egutegia hemen.**


SANTUENEAN EGIN ZUTEN LEHEN BILERA, PASA DEN ASTELEHENEAN.

**Ekainak 6, asteazkena:** Kalezar, 19:00 Auzo Elkartea, Harane.

**Ekainak 7, osteguna:** Zubieta, 19:00 Kaxkape.

**Ekainak 11, astelehena:** Aginaga, 19:00 Antxomolantxa Elkartea.

**Ekainak 13, asteazkena:** Urdaiaga/Txokoalde, 19:00 Erroizpe elkartea.

**Ekainak 18, astelehena:** Kaxkoa, 19:00 Potxoenea.

## Moneta askeari buruzko bilera

Auzolan Elkarteak, Moneta Askeari buruzko seminarioa antolatu zuen joan den maiatzaren 18tik 20ra, eta haren jarraipen gisa, bilera berri bat antolatu dute Usurbilen larunbaterako. Goizez, 10:00-13:30 artean Potxoenean burutuko den bilkuran, gai honi buruzko eztabaida bultzatu nahi dute antolatzaileek, aurreko seminarioan "Euskal Herrirako elkartrukerako moneta aske lokalen sarea abiatzea erabaki ondoren". Iragarri dutenez gainera, "moneta askeon sarea martxan jartzear da, esperimentazio fasean dago".

## Funk Gaua Akerra Gaztetxean

Txokoaldeko Akerra Gaztetxekoek Funk Gaua antolatu dute, larunbat honetarako. 23:00etatik aurrera, Makulu Ken Lasarte-Oriako taldeak eta Makala disko-jartzaileak parte hartuko dutela berri eman dute antolatzaileek. "Gaua girotzen joateko lehenik Makulu Ken talde lasartearrak beraien cd berria aurkeztuko dute, funk eta musika beltza nahastuz sekulako doinu dantzagarriak! Ondoren, musikak jarraituko du Makala disko-jartzailearekin, gerriak mugitzeko parada egongo da bere musika alaiarekin", adierazi dute Akerra Gaztetxetik.









## ETXEBIZITZA

- 3 logelako pisu bat alokatzen da Muna Lurra kalean. 661 43 63 53.
-Lau logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. Informazioa: 659389707 / nerezabala1@gmail.com
-Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650euro. Tf: 667 438 145.
- Etxe bat alokatzen da Artaxonan (Nafarroa). 4 logela, jangela handia, loractegia. Hilabeterako edota baita uda parterako ere. 450 euro. 670 090 262 (Irene)
- Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairukoa, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914
- Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.
- Pisu bat salgai Kaxkoan. Dena berritua. 3 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua eta prezio onean. 697 204 758.
- Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 31 milioi pezeta. 943370957.
- Aukera ezin hobea! Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.
-Pisua alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.
-3-5 gela arteko pisua alokatzen dut Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurretarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.
- Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.
- Pisua salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346.
- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainugela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara,igogailua. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, dena berritua, fatxada,teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
-Altzariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Pisua alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Scooter bat salgai, 450 euro. Egoera onean. 678 603 659.
- Kapritxozko Citroen Saxo salgai premiazkoa 2.200 euro. SS-BH, sekula istripurik izan gabea. Ondo zaindua eta gehigarri batzuk opari: bolante deportiboa eta erruberak zabaltzeko piezak. 609 928 387.
- Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro koadro. 250 euro. Gazteentzat..., Atxegalden. 628 063 871.
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m garaje itxia salgai, Txaramunton. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalen. 647 120 253.

## LANPOSTUAK

### Lan-eskaerak

-Sukaldari bat behar da Usurbilgo jatetxe baterako. 670 410 273.
- Sukaldari bat behar dugu, Xarman. 943 368 771.
- Selektibitatea prestatzeko klaseak jaso nahi ditut martxoan eta apirilean, bi alor hauetan: Matematika (zientzietakoa eta letretakoa) eta Marrazketa teknikoa. Deitu, mesedez, telefono honetara: 665 748 723.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

### Lan-eskaintzak

- Ingeles natiboak klaseak eskaintzen ditu uztailean Usurbilen, 10 urtetik gorakoei 686 499 775 (Toby).
- Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).
- Neska arduratsua garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.
- 18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.
- Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.
- 17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)
- 16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerreko lehen maila amaitua. 665754889 / 692577515 (Xabier)
-Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.
-Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.
- Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.
-Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568
- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf.: 673 445 903.
- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
-Umeak zainduko nituzke arratsaldez edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.
-Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatua eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatua naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziekin eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
-Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
-Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
-Emakume esperientziduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123.
-Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetarako, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Angora arrazako 10 katu txiki oparitzen ditut. Tlf.: 628 745 443.
- Mutil baten txamarra, talla 10-12, galdu zaigu frontoian. Beig eta urdin kolorekoa. 656 702 957.
- Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223
- Egoera onean dauden kanping kanadienseak jasoko genituzke. ziortzage@gmail.com
- Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon"en. Aste Santuko bigarren astea, uztaila eta iraila. "Punta Lago" kanpinean. 634 443 909.
- Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.
- Haur sila eta kapazoa erosiko nuke: 667 715 075.
- Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.
- Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451
- Akordeoia saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Usurbilen WII-a, PSP-a eta nintendo DSI-aren sofwarea aldatzen da, Internetetik jaitsitako joko guztietan jolastu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen,ez da kontsola irekitzen. 635 729 637.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.



**Zorionak bihurri!!**
Ekainaren 9an 7 urte beteko dituzu. Muxu erraldoi bat Julen eta Eukeneren partez! Ondo pasa Axi!



**Zorionak Mari Jose eta Jose Luis Zilar Ezteiengatik!**
Larunbatean atera txanpaña!
Zuen familia.



**Zorionak Zuhaitz!!**
Ekainaren 11n 8 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu handi bat Nahia eta etxeko guztion partetik!



**Zorionak June!**
Merendola goxo batekin ospatuko dugu. Muxu Handi bat, Unax, Oihan, Anje eta Aratz-en partetik

Hamaika
ikusteko, bizitzeko


LTD/Euskaltel


Ordenagailuan


Ipad/Tablet


Mugikorrean

Nazioa eskura
www.hamaika.tv

# Ekainean DESKONTUAK Hurbilago Txartelarekin




## Ekainaren 4tik 9ra

deskontua erosketa guztietan

**% 5**

## Ekainaren 11tik 30era

ustekabeko deskontuak

**% 5**

ARTZABAL
Ellumen / mistoa
Esnaola Ijarrindegia
MIKEL Arraindegia
Ane Ileapaindegia
Arruti haragitegia - urdaitegia
SAIZAR Betiko Sagardoa
USURBIL OPTIKA
ALDAMU Konponketak
Aliprox
ALKARTASUNA
ARGILAN Elektrodomestikoak Elektrizitatea
atxega
AGINAGA Sagardotegia
LAUROK Liburudenda
Enar Estetika
JUANTXO Burdindegia
INTZA Ilepaindegia
iratze naturdenda
kaffa Kafetegia Gozotegia
T Taberna
Aizpurua Okindegia
LABE-GOXO Okindegia Gozotegia
LIZARDI Liburudenda
Loli Lizarralde Estilista
Marije Arropa denda
Bixen Ileapaindegia
Txiribogа Taberna
Elexpe
Olar-Goxo
Palma
Poxpolin mertzeria
Zalako frutadenda
Lurda
Urtinea Loradenda
ESNAOLA JANARIDENDA
BORDATXO taberna Pintxo Bereziak
TXAPARTEGI harategia
Iturralde botika
Arraindegia Pello
SALTXIPI Jatetxea - Erretegia
LUR Barazkiak eta frutak

hurbilago Usurbilgo Merkatari
Usurbil osasuna alez ale
Usurbilgo Udala
Behemendi
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco